

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2218

*285/2020 EBAZPENA, martxoaren 13koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Ricardo Ituarte Azpiazu jauna hautatzen baitute Tolosaldeko Erakunde Sanitario Integratuko Kudeaketako Zuzendari lanpostua betetzeko.*

Aztertua izan da Tolosaldeko Erakunde Sanitario Integratuko Kudeaketako zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusiaren abenduaren 10eko 1641/2019 Ebazpenaren bidez argitaratu zen, 2020ko urtarrilaren 15eko EHAA n (9. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira. Haren baldintza profesionalak jasotako merezimenduen arabera baloratu dira.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Ricardo Ituarte Azpiazu jauna deialdiko lanposturako proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela eta, Zuzendaritza Nagusiak honako hau,

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Ricardo Ituarte Azpiazu jauna Tolosaldeko Erakunde Sanitario Integratuko Kudeaketako zuzendari izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2020ko martxoaren 18tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 13a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JUAN LUIS DIEGO CASALS.